

10/22

irizpena

Euskal Autonomia Erkidegoan
Jasangarritasunerako Hezkuntza sustatzeko

Dekretu-proiektuaren buruzkoa

Bilbon, 2022eko uztailaren 12a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 10/22

I.- AURREKARIAK

2022ko ekainaren 21ean, Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren idazkia sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, "Euskal Autonomia Erkidegoan Jasangarritasunerako Hezkuntza sustatzeko dekretu-proiektua"ri buruzko txostena eskatzeko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Arau horren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan iraunkortasunerako hezkuntza bultzatzea, indartzea eta sendotzea, gure bizimoduetatik iraunkortasunaren kultura berrirako trantsizioa lortu ahal izateko.

Berehala bidali zitzairen dokumentuaren kopia Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia bidal zitzaizkien eta dagokion Lan-batzordeari helaraz ziezazkioten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera. 2022ko uztailaren 5ean, Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen, eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen, Kontseiluaren uztailaren 12ko Osoko Bilkurari aurkezteko, eta aho batez onartu zen.

II.- EDUKIA

"Euskal Autonomia Erkidegoan jasangarritasunerako Hezkuntza sustatzeko dekretu-proiektuak" zioen azalpena, 17 artikulua eta bi azken xedapen ditu.

Eusko Legebiltzarrak, NBERen eta Europako erakundeen jarduerari jarraituta, 2019. urtean klimalarrialdia deklaratu zuen, eta Eusko Jaurlaritzari eskatu zion 2020ko aurrekontuetan sar zitzala klimalarrialdiak eskatzen dituen "anbizioa eta urgentzia" ahalbidetzeko ekintza sektorial guztiak abian jartzeko behar ziren partidak. Adierazpenean azpimarratzen duenez, klima-aldaketaren aurkako borroka mundu mailako erronka da, guztioi dagokiguna, eta, aldi berean, uste osoa du Euskadi erronka horren buru izan daitekeela eta eraldaketarako eragilea bihur daitekeela ekonomia lehiakorragoa eta klimaren aldetik neutroagoa lortzeko bidean.

Ildo horretan, Euskadi Basque Country 2030 Agenda Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) lotura estuagoa duten Gobernu Programaren helburu eta konpromisoetan ardatzen da, eta horien jarraipen espezifikoa egingo da Agendak berak ezartzen dituen gobernantzarako tresnak eta bideak baliatuz. Helburuen artean, ingurumen-hezkuntzako politikak indartu nahi dituen nabarmenak da, herritarren erantzunkidetasunean aurrera eginaz ingurumena babesteko eta kontserbatzeko.

Ildo horretan, EAEko gizarteak ingurumen-hezkuntzaren arloan egindako bidea aitortzen da. Izan ere, azken berrogei urteetan, ingurumen-hezkuntza pixkanaka sartu da hezkuntza formalean, baina beharrezkoa da, halaber, bizitza osoan lortutako gaitasunen jarraipena egitea, besteak beste, hezkuntza ez-formalaren eta informalearen bidez.

Dekretu honen bidez, halaber, ezagutza horiek hezkuntza-esparrutik kanpo jarraituko dutela bermatu nahi da, eta, esan bezala, ezagutza horien jarraipena bizitza osoan egitea sustatu nahi da, herritarrak iraunkortasunerako hezkuntzaren esparruan etengabe prestatzeko aukera ematen duten mekanismo eta tresnen bidez.

Gaur egun, Eskolako Agenda 2030 (lehenengo Eskolako Agenda 21) programa finkatua da, eta erreferentea da Euskal Autonomia Erkidegoko iraunkortasunerako hezkuntzan. Programa horrek

ikastetxe bakoitzeko ingurumen-ekintzaren osotasunetik lan egiten du, hezkuntza-komunitate osoa bilduta, eta, aldi berean, Tokiko Agenda 2030 prozesuarekin (lehenengo Tokiko Agenda 21) konpromisoa hartuta.

Hala ere, Iraunkortasunerako Hezkuntzak unibertsitateaz kanpoko hezkuntzaren esparruan duen sartz-maila hobetu daiteke oraindik ere, eta, horretarako, dekretu hau argitaratzeaz gain, ekintza osagarriak egin behar dira, hala nola 202/1989 Dekretua eta 1996ko ekainaren 26ko Agindua egungo egoerara eguneratzea eta Iraunkortasunerako Hezkuntzaren curriculumean erabat txertatzea. Era berean, esan bezala, beharrezkoa da hezkuntza-eremu ez-formala indartzera bideratutako ekintzak bultzatzea, bizitza osorako hezkuntza deritzona sendotuta.

Hala, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren 4. helburuak (“Kalitatezko hezkuntza”) hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea du helburu, baita bizitza osoan ikasteko aukerak sustatzea ere pertsona guztientzat.

Era berean, IV. Ingurumen Esparru Programa 2020 (IEP) delakoaren 5.4 jarduera-ildoak «iraunkortasunerako hezkuntza eta kontzientziatzea» proposatzen du euskal gizarte osoan, eta 66. jardueran zehazten du «Iraunkortasunerako Ingurumen Hezkuntzako Estrategia» egin behar dela. Eta, agindu horri jarraituta, 2018ko urtarrilean Iraunkortasunerako Hezkuntzaren 2030erako Euskal Estrategia argitaratu zen. Haren helburua jarduteko gida praktikoa eta kolaboratiboa izatea da, non eragile guztiek lekua izango duten eta elkarri eragingo dioten helburu argi batekin: Euskadin bizi diren pertsona guztien konplizitatea lortzea, gure bizimoduetatik iraunkortasunaren kultura berrirako trantsizioan inplikatzeko.

Hortaz, jauzi kualitatiboa egiten da, eta testuinguru horretan, ekintzen kalitatea hobetzean jartzen da arreta, benetan hezkuntza eraldatzaileaz hitz egin ahal izateko. Hori da Dekretua argitaratzearekin lortu nahi den lehentasunezko helburua: iraunkortasunera bideratutako antolakuntza- eta hezkuntza-kalitateko eredu berriak garatzeko bideak aktibatzen laguntzea, ingurumena babesteko eta kontserbatzeko herritarren erantzunkidetasuna indartuta.

Ildo horretan, adituak eta jardunbide egokiak trukatzeko ekosistema sortzea Euskal Autonomia Erkidegoan iraunkortasunerako hezkuntza sustatzeko funtsezko beste faktore bat da. Ekosistema horrek hezkuntza jasangarriko gaikuntzen garapena erraztuko du, ezagutza-komunitateak aktibatuko ditu eta zentroen arteko *mentoringa* erraztuko du, eta, azken batean, herritarren gaikuntza (gaitasun sozialak, orokorrak eta espezifikokoak) eraikitzen lagunduko du.

Aipaturiko ekosistema horrek, berrikuntza, gaikuntza eta ezagutza kudeatzeko zentroa den aldetik, besteak beste, sinergiak sortzea ahalbidetuko du, ezagutzak partekatzeko eta esperientziak trukatzeko ikastetxeen eta iraunkortasunerako hezkuntzaren eremuko hainbat arlotan lan egiten duten beste eragile batzuen artean: GKEak, erakunde ekologistak, boluntarioak edo eremu horretan lan egiten duten beste erakunde eta eragile batzuk.

III.- GOGOETA OROKORRAK

1. Hitzaurrea

Gaur egun dugun erronka sistema sozioekonomiko osotik iraunkortasun hirukoitzeko trantsizioa erraztea da –soziala, ingurumenekoa eta ekonomikoa–, betiere eraldaketa horrek aldaketa ekonomiko, teknologiko eta sozial sakonak eskatzen dituela jakitun izanik. Hezkuntza-sistema (formala

eta ez-formala) funtsezkoa, ezinbestekoa eta lagungarria da aldaketa horiek lortzeko. Hezkuntza da Europako erakundeetatik eskatzen den eraldaketa-prozesua bizkortzea eta euskal gizartean iraunkortasunaren ezagutzaren eta kulturaren oinarriak finkatzea ahalbidetuko digun oinarria.

Iraunkortasunerako hezkuntzaren funtsezko helburuetako bat da, hain zuzen ere, pertsonak, banaka zein taldeka, ingurumenaren izaera konplexua uler dezaten lortzea (hainbat alderdiren elkarreraginaren emaitza: fisikoak, biologikoak, sozialak, kulturalak, ekonomikoak, eta abar) eta ezagutza, balio eta trebetasun praktikoak eskura ditzaten, ingurumenaren gaineko arazoaren prebentzioan eta konponbidean eta ingurumenaren kalitatearen kudeaketan arduraz eta eraginkortasunez parte hartzeko. Hortaz, iraunkortasunerako hezkuntzak, hezkuntza-prozesuaren alderdi jakin batera mugatu beharrean, bitzta sozialera irekitako hezkuntza-praktika izan behar du, gizarteko kideek, beren aukeren arabera, gizadiaren eta ingurunearen arteko harremanak hobetzeko zeregin konplexu eta solidarioan parte har dezaten.

Alde horretatik, iraunkortasunerako hezkuntzak lagundu egin behar digu herritarrek erabakiak hartzeko prozesuan benetan parte har dezaten lagunduko duten kontzientzia, balioak eta portaerak har ditzaten bultzatzen. Iraunkortasunerako hezkuntza, horrela ulertuta, faktore estrategikoa izan daiteke eta izan behar du, iraunkortasunerako eta ekitaterako bidean ezarritako garapen-ereduan eragiteko.

Horrexegatik **uste dugu egokia dela** EAEn iraunkortasunerako hezkuntza sustatzeko honako dekretu hau egitea.

2. Balorazio orokorra

Beraz, *“Euskal Autonomia Erkidegoan iraunkortasunerako hezkuntza bultzatzeko dekretu-proiektua”* jarri da gure irizpen pean. Dekretu horren helburua Euskal Autonomia Erkidegoan iraunkortasunerako hezkuntza bultzatzea, indartzea eta sendotzea da, gure bizimoduetatik iraunkortasunaren kultura berrirako trantsizioa lortu ahal izateko, hain zuzen ere 1.1 artikuluan xedatzen den bezala.

Araua argitaratuta, hezkuntza sustatu eta garapen jasangarriaren printzipio edo oinarri nagusiekin lerrokatu nahi da, hezkuntza eraldatzaileaz hitz egin ahal izateko, eta hori **positibotzat jotzen** dugu.

Zehazki, helburu hauek partekatzen ditugu: iraunkortasunera bideratutako antolakuntza- eta hezkuntza-kalitateko eredu berriak garatzeko bideak aktibatzea erraztea, eta iraunkortasunerako ingurumen-hezkuntzako politikak indartzea, herritarren erantzunkidetasunean aurrera eginez ingurumenaren babesean eta kontserbazioan, iraunkortasunerako hezkuntzaren esparruan lankidetzak sustatuz, koordinatuz eta gauzatuz, eta ekintza eraldatzaile ekosoziala sustatzea ardatz hartuta.

3. Zenbait gai orokor

Arau horren edukiari dagokionez, honako alderdi hauek aipatu nahi ditugu:

- Lehenik eta behin, aurkeztu zaigun testuan behin eta berriz aipatzen dira ingurumen-iraunkortasuna eta garapen jasangarria, baina ez, ordea, **bidezko trantsizio ekologikoa**. Gure ustez, 1.2. artikuluan horri buruzko aipamena sartu beharko litzateke, Dekretuaren helburuak adierazten dituena, haren garrantzia egiaztatzeko.

Kontzeptu hori estuki lotuta dago enpleguari eustearekin eta haren kalitatearekin, eta funtsezkoa da mantentze hori iraunkortasunerako jarraibideekin bateratu ahal izateko. Horregatik,

ingurumena eta bidezko trantsizioa lotu behar dira, iraunkortasunerako hezkuntzaren parte izan dadin.

- Bigarrenik, gure ustez asmo ona da, zioen azalpenean esaten den legez, dekretu honen bidez **adituen eta jardunbide egokien trukerako ekosistema sortzea**, hezkuntza jasangarriko gaitasunen garapena erraztuko duena, ezagutza-komunitateak aktibatuko dituen eta ikastetxeen arteko *mentoringa* erraztuko duena, eta, azken batean, herritarren gaikuntza eraikitzen lagunduko duena. Hala ere, ekosistema horrek nolakoa izan behar duen definitzen denean agerian gelditzen denez, osaera eragileen edo erakundeen zerranda itxi bat baino ez da, hala nola GKEak, unibertsitateak, erakunde ekologistak, boluntarioak eta hezkuntza-eremuan lan egiten duten eragileak, iraunkortasunerako hezkuntzan pisu garrantzitsua izan dezaketen beste erakunde batzuk kanpoan utzita, esaterako TKNIKA edo BC3 Basque Centre For Climate Change-BC3. Klima Climate Change-Klima Aldaketa Ikergai.

Hori sistemaren organoak arautzen dituzten xedapenetan ikus daiteke, hala nola **5. artikuluan**, Berrikuntza, Gaikuntza eta Ezagutzaren Kudeaketako Zentroaren osaera jasotzen duena (aurrerago aipatuko dugu berariaz), eta **13. artikuluan** (erregistro horretan zehazten da zein izan daitezkeen erakunde laguntzaileak definitzen ditu¹). Erakunde laguntzaile izatetik kanpo geratzen dira LHko, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe garrantzitsuak (TKNIKA eta Berritzeguneak).

Azken batean, interesgarria litzateke truke-ekosistema hori dekretu honetan sartzen diren erakundeetara mugatuta ez geratzea, eta, beharrezkoa denean, ingurumen-hezkuntzan **erreferentziako beste erakunde batzuk** txertatzeko aukera emango duen mekanismoren bat jasotzea, iraunkortasunerako hezkuntza hobetzeko.

- Era berean, aztertu beharko litzateke ekosistemaren konfigurazioan kontuan hartzea **enpresak izan dezakeen eginkizuna**, are gehiago dekretuak pertsona baten bizitza osoko hezkuntza arautzen duenean (haren lan-etapa barne). Gogoratu behar da enpresak arduratzen direla iraunkortasunaren oinarriak euskal ekonomian integratzeaz eta garapen jasangarriaren helburuak Euskadiko lantokietan ezartzeaz, betiere estrategiak, plangintza, neurri operatiboak eta inbertsioa garatuta. Enpresa-ikuspegi pragmatikoago horrek, iraunkortasunaren eremuari atxikia, beste eragile batzuek eman dezaketen ikuspegi kontzeptualagoa, teorikoagoa edo akademikoagoa osatzea ahalbidetuko luke. Bi ikuspegiak (teorikoa, praktikoa) kontuan hartu beharko lirarteke iraunkortasunerako hezkuntzako edukiak diseinatzerakoan.

Horrexegatik proposatzen dugu 3. artikuluan proposaturiko eremu subjektiboa malgutasun handiagoarekin eratzea, beste errealitate horiek aintzat hartzeko aukera emanez (adibidez, "hezkuntzaren alorrean inplikaturako gizarte-eragileak" izan ordez "iraunkortasunean inplikaturako eragileak" izatea).

- Ildo horretan, zioen azalpenean, esparru horretan lan egiten duten eragileei buruz hitz egiten denean, ez da argi geratzen figura horren barruan **gizarte-eragileak** ere sartzen diren, ezta horiei buruz ari diren ere, 3. eta 4.2 artikuluetan jasotako termino berberetan ("*ingurumen-hezkuntzan inplikaturako gizarte-eragileak*").

¹ Hauxe xedatu du 13.3 artikulua: "*Ingurumenaren arloan eskumena duen sailak erakunde laguntzaileetat aintzatetsi ahal izango ditu iraunkortasunerako ingurumen-hezkuntzaren arloan lan egiten duten hirugarren sektoreko erakunde ospetsuak, ingurumenaren arloan eskumena duen saileko titularrak emandako aginduaren bidez ezartzen diren baldintzetan*".

Gure ustez, komenigarria izango litzateke gai hori argitzea. Izan ere, aurrerago, Dekretuaren artikuluetan, gizarte-eragileen figura hori ez dirudi kontuan hartu behar denik eratu nahi den berrikuntza eta gaikuntza zentroaren Organo Kudeatzailearen osaeran, ezta horri aholkuak emango dizkion Batzorde Teknikoarenean ere (horren osaerak 6. artikulutan aipatu berri ditugu). Ezta "Ikastetxe Iraunkorraren zigilua" (10.2. art.) aintzatesteko eta esleitzeko prozesuen Organo Kudeatzailearen osaerari eta aintzatesteko prozesu horiek Ebaluatzeko Batzordeari dagokionez ere (11.2. art.).

- Bestalde, Dekretu-proiektuan **zaharkitu samar geratu diren termino batzuk** erabiltzen dira hala nola herritarren etengabeko prestakuntza, iraunkortasunerako hezkuntzaren esparruan, edo "bizialdi osoko hezkuntza" terminoa. Lehenengoaren "bizitza osoko ikaskuntzak" edo "laneko prestakuntzak" ordezkatu du, eta bigarrena "bizitza osoko ikaskuntzak", gure esparru juridikoaren arabera. Horrelako kontzeptuak berrikustea eta, hala badagokio, gaur egun hezkuntzaren eta lanaren eremuan erabiltzen direnekin ordezkatzea proposatzen dugu.
- Bestalde, zioen azalpenean esaten denez, "*iraunkortasunerako hezkuntzak unibertsitatez kanpoko hezkuntzaren eremuan duen sartze-maila **hobetu daiteke** oraindik*", baina ez da hori egiaztatzeko adierazlerik ematen. Hortaz, horrelako baieztapenak babesten dituzten datu batzuk sartzea proposatzen da, eta, aldi berean, aipatutako defizit hori hobetu nahi duen Dekretu hau bezalako ekimenak hartzeko beharra justifika dezakete.
- Azkenik, Ikastetxe Iraunkorraren Zigilua emanaz, ikastetxeek gauzatutako "*ekintza iraunkorraren jarduera eta ebidentziak saritu*" nahi dira (8.1. art.). Uste dugu, halaber, egokia eta koherentea izango litzatekeela, iraunkortasunaren mesedetan, Jaurlaritzak behar diren neurriak hartzea ikastetxeek hartzen dituzten eraikinek **eraikin iraunkorren** baldintzak bete ditzaten.

4. Iraunkortasunerako Hezkuntzaren arloko Berrikuntza, Gaikuntza eta Ezagutzaren Kudeaketarako Zentroa

5. artikuluan, Iraunkortasunerako Hezkuntzaren arloko Berrikuntza, Gaikuntza eta Ezagutzaren Kudeaketarako Zentroa sortzen da. Zentro hori fisikoa eta birtuala da, eta Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren arloko eskumena duen sailak kudeatzen du. Zentro hori, berez, Euskal Autonomia Erkidegoko iraunkortasunerako hezkuntzaren erreferentzia gunea da. Era berean, hauxe aipatzen da: "*zentro hori ekosistema eta konexio-sare gisa eratzen da administrazioko, unibertsitateetako, ikastetxeetako, ikerketa-zentroetako, erakunde publiko eta pribatuetako eta iraunkortasunerako ingurumen-hezkuntzaren arloan lan egiten duten beste eragile batzuen artean*".

Lehenik eta behin, gogorarazi behar dugu Eusko Jaurlaritzak **badituela ezagutza kudeatzeko zenbait berrikuntza-zentro**, ingurumen-ikaskuntzan eta iraunkortasunean berrikuntzak egiten dituztenak, hala nola TKNIKA, edo Lan eta Enplegu Sailaren etorkizuneko Enplegu Berrikuntzako Zentroa, edo Hezkuntza Sailak euskal geografia osoan banatuta dituen Berritzeguneak.

Ildo horretan, zentro berri horren eta euskal hezkuntza-sistemaren berrikuntza-sarea osatzen dutenen arteko koordinaziorako eta interakziorako mekanismoa aurreikustea proposatzen dugu, datozen urteetan ingurumen-hezkuntzako sistema estrategiko bat eraikitzeko, baliabideetan eraginkorra, kalitate teknikokoa eta hartzaileentzat balio erantsi handikoa.

Bestalde, helburuak ikusita, harrigarria da Iraunkortasunerako Hezkuntzaren arloko Berrikuntza, Gaikuntza eta Ezagutzaren Kudeaketarako Zentrorako ezartzen diren egituraren eta osaeran, zehazki Kudeaketa Organoan (6.3. artikulua), **eskola-komunitateak ordezkaritzarik** ez izatea, eta Batzorde

Teknikoan unibertsitateaz kanpoko ikastetxeek ordezkari-tza txikia izatea (6.7. art.). Horregatik, eskola-komunitatearen ordezkari-tza sartzeari proposatzen dugu Kudeaketa Organoan eta ikastetxeetan, zentro jasangarritzat aitortutako ikastetxe gisa Batzorde Teknikoan duenaz gain (6.7.i artikulua dakarren moduan),.

Era berean, gogoeta orokor horietan azalduakoa berretsita, uste dugu batzorde tekniko horrek aukera izan beharko lukeela ingurumen-hezkuntzako erreferentziako **beste erakunde publiko edo pribatu batzuk sartzeko**.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

Zioen azalpena

3. orrialdeko azken paragrafoan letra lodiz nabarmentzea gomendatzen da:

*“Egindako lan eta ahalegin handia gorabehera, Iraunkortasunerako Hezkuntzak unibertsitatez kanpoko hezkuntza-eremuan duen sartzeari-maila hobetu daiteke oraindik ere, eta **Iraunkortasunerako Hezkuntza curriculumean zeharka txertatu behar da, gaitasunen araberrako ikaskuntza eta ikasgelatik kanpoko ikaskuntza sustatuz, natura-ingurunearekin harremanetan. Horretarako, beharrezkoa da, halaber, irakasleek Ingurumen Hezkuntzan erabateko prestakuntza izatea. Horretarako, dekretu hau argitaratzeaz gain, ekintza osagarriak egin behar dira, hala nola arestian aipatutako 202/1989 Dekretua eta 1996ko ekainaren 26ko Agindua egungo egoerara eguneratzea eta Iraunkortasunerako Hezkuntzaren curriculumean erabat txertatzea. Era berean, hezkuntza-eremu ez-formala indartzera bideratutako ekintzak bultzatu behar dira, esan bezala, bizitza osorako hezkuntza deritzona sendotuz.***

17. art. AZTERTU+ programa

AZTERTU+ programak, ingurumenaren arloan eskumena duen Sailak bultzatutako AZTERTU programaren jarraipena, hezkuntza-komunitatea eta herritarrak, oro har, natura-ingurunearen ingurumen-balioez eta baliabide ekologikoak eta ondarezkoak babestu eta sustatzeko beharraz kontzientziatu nahi ditu.

Horretarako, artikulua horren **2. atalak** honako hau ezartzen du *“AZTERTU+ Programaren bidez eta Iraunkortasunerako Hezkuntzaren Berrikuntza, Gaikuntza eta Ezagutzaren Kudeaketarako Zentroarekin koordinatuta sustatutako dira natura-ingurunearen babesean herritarren parte-hartzea eta zientzia bultzatzen duten ekintzak, eta, zehazkiago, honako helburu hau lortu nahi da: a) Herritarrek biodibertsitatearen eta garapen jasangarriaren arloan parte hartzea, tokiko ingurunearekiko lotura bultzatuz eta ekintzarako benetako hezkuntza sustatuz. b) Euskal Autonomia Erkidegoan, esparru ez-formalean iraunkortasunerako ingurumen-hezkuntzaren arloko programa erreferentea izatea, bizialdi osoko hezkuntzaren oinarriak finkatuz”*.

Kontseilu honek, programa hau garatzeko, hirugarren sektoreko erakundeen lankidetzari proposatzen du.

18. art. Urteko hitzaldia

Artikulu honen lehen atalean esaten denez, *“ikasturteko azken hiru hilabeteetan egingo da, Ingurumen Hezkuntzaren munduko egunarekin bat etorritik, iraunkortasunerako ingurumen-hezkuntzari buruzko*

urteko konferentzia, iraunkortasunerako hezkuntzaren arloko alderdi berritzaileei eta abangoardiakoei buruzkoa”.

Agindu hori zuzentzea gomendatzen dugu. Izan ere, Ingurumen Hezkuntzaren munduko eguna urtarrilaren 26a da, eta, beraz, ikasturteko bigarren hiruhilekoa da. Azken hiruhilekoan, ingurumenaren munduko eguna ospatzen da (ekainaren 5a).

V.- ONDORIOA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da *“Euskal Autonomia Erkidegoan jasangarritasunerako Hezkuntza sustatzeko dekretu-proiektua”* izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen oharrekin.

Bilbon, 2022ko uztailaren 12an

O.E. Presidentea

Emilia M. Málaga Pérez

Idazkari nagusia

Olatz Jaureguizar Ugarte